**UDAL TITULARTASUN EDO ADMINISTRAZIOKO BIDEEN PROBETXAMENDU BEREZIA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA**

1.-artikulua.- Xedea:

Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen 7/85 Legearen 25. artikuluan, Toki Korporazioen Ondasunei buruzko Araudian eta baterako legezko gainerako xedapenetan ezarrita dagoenaren arabera udal titulartasun edo administrazioko bideen probetxamendu baterakoa, berezia eta arrunta araupetu du. Araupetze horren helburua honakoa da: ibilgailu astunen zirkulazioak bideoi eragiten dizkien kalteak ebitatzea; trafiko hori, batez ere, basoak ustiatzeko egiten diren lanengatik izaten da, baita harrobietatik, mehatzetatik ateratzen den lurraren pilaketagatik edo mugimenduengatik eta antzeko jarduerengatik ere.

2.- artikulua.- Aplikazio eremua:

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

3.- artikulua.-Lizentzia:

Udalaren bideak erabili behar dituzten garraiolariek, kontratariek eta partikularrek lizentzia egokia eskatu beharko diote Udalari. Eskari horretan ondokoak adierazten dituztela:

a) Jabearen eta kontratariaren identifikazio-datuak, eta enpesaren IFK.
b)Garraioan erabiliko diren ibilgailuei buruzko datuak –euren tara eta gehienezko karga zein den zehazten dela–; baita erabili gura diren bide publikoen deskribapena ere, egingo den ibilbidea plano baten zehatz markatuta, ibilbide hori non dagoen eta zein den ondo identifikatu ahal izateko.

c) Garraiatuko diren materialen bolumena, estereotan edo m3-tan adierazita.
d) Garraioa zein egunetan hasi eta amaituko den.

**ORDENANZA REGULADORA DEL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DE CAMINOS DE TITULARIDAD O ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL**

Artículo 1.-Objeto:

Este Ayuntamiento de acuerdo con lo previsto en el artículo 25 de la Ley 7/85, de Bases de Régimen Local, el Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales y demás disposiciones legales concordantes, regula el uso común, especial, normal de los caminos de titularidad o administración municipal con el fin de evitar su deterioro como consecuencia de la circulación por los mismos de vehículos pesados que transportan materiales como consecuencia de explotaciones forestales, actividades de extracción de canteras, minas, de acopio o movimiento de tierras y cualquier otra actividad similar.

Artículo 2.-Ámbito de aplicación:

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

Artículo 3.-Licencia:

Los/las transportistas, contratistas y/o particulares que precisen la utilización de caminos de titularidad municipal deberán solicitar la oportuna licencia municipal haciendo constar los siguientes extremos:

a) Datos identificativos del propietario/a, contratista y CIF de la empresa.
b)Datos relativos a los vehículos dedicados al transporte, especificándose la tara del mismo y carga máxima, así como descripción de los caminos públicos que se deseen utilizar, determinando el trayecto que se vaya a realizar en un plano de situación, con suficiente detalle para poder identificar la traza de los mismos.
c) Volumen en estéreos y m3 de los materiales a transportar.
d) Fecha de inicio y finalización del transporte.

e) Materialak pilatzeko asmoa izanez gero, modu grafikoan markatu beharko da zehatz non egingo den pilaketa hori, pilatze-leku hori ondo identifikatu ahal izateko. Material-pilaketak ezingo dira jabetza publikoko guneetan egin, ezta –kasu berezietan eta hirigintzako planeamenduan ezarritakoetan izan ezik– zorbideetan ere; salbu eta, baimena eman den kasuetan.

f) Egurra zein menditatik edo nondik aterako den (izena eta kokapena), partzelen katastro-zedula zein den zehaztuta.

g) Egin beharreko zuhaitz-mozketarako, erakusketa-jarduerarako zein indusketa- edo betetze-lanetarako baimena, dagokion arloko agintaritza eskudunak emana. Baimen horretan zehatz adierazi beharko da aprobetxamenduen bolumena estereotan, edo erakusketa- edo betetze-lanen tamaina m3-tan.

h) Erabiliko diren bide publikoen gaur egungo egoera erakusten duten koloreetako argazkiak.

i) Segurtasun, osasun eta hondakinen kudeaketari buruzkoa den araudia betetzen dela adierazten duen dokumentua.

4.- artikulua.-Debekuak:

Egurra ateratzeko eta garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek ezingo diete ezelango afektaziorik ez kalterik eragin Udalarenak diren edo Udalak kudeatzen dituen bideei. Gomazko errodaia banda duten ibilgailuak erabili beharko dira. Debekatuta dago kateak erabiltzea, baita zoladura gaineko arrastaketa ibilgailuak erabiltzea ere.

5.- artikulua.-Ebazpenerako epea:

Lizentzia emateari buruzko prozedura ebazteko gehienezko epea eskatzen denetik zenbatu beharreko 15 egunekoa izango da (eskariak 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu). Epe hori igaro ondoren, eskabideari oniritzi zaiola ulertuko da, beren beregiko ebazpenik egon ezean.

e) Si se va a realizar acopio de materiales, indicación gráfica del lugar con suficiente detalle para poder identificar la zona de acopio. Dichos acopios no podrán ocupar las zonas de dominio público y, salvo casos excepcionales y de planeamiento urbanístico, las de servidumbre, salvo autorización.

f) Nombre y situación del monte o lugar del que proviene, especificando la cédula catastral de las parcelas.

g) Autorización para la tala, actividad extractiva, excavación o relleno a realizar, expedida por la autoridad competente en la materia, en donde se especifique el volumen de estéreos del aprovechamiento o m3 del movimiento de extracción, excavación o relleno de que se trate.

h) Fotografías en color del estado actual de los viales públicos a utilizar.

i) Documento donde se indique el cumplimiento de la normativa de seguridad y salud y la gestión de los residuos.

Artículo 4.-Prohibiciones:

Los vehículos utilizados tanto para la extracción de material forestal como para el transporte no deberán generar afección ni deterioro a los caminos de titularidad o administración municipal. Los vehículos a utilizar sobre la traza de los caminos deberán ser de banda de rodadura de goma, estando prohibidas las cadenas y los vehículos de arrastre sobre firme.

Artículo 5.-Plazo de resolución:

El plazo máximo para resolver el procedimiento para el otorgamiento de la licencia será de 15 días desde que se solicita la misma con los requisitos del artículo 3 anterior, transcurrido el cual se entenderá estimado cuando no recaiga resolución expresa.

6.- artikulua.-Tasak:

1.-Udalak lizentzia eman dezan, ezartzen diren prezio publikoak ordaindu beharko dira; hori egin arte ezin ekin izango zaio erabilera edo probetxamenduari.

2.- Prezio publikoa ez ordaintzeak lizentzia ezeztatzea ekarriko du berez.

3.- Udal titulartasun edo administrazioko bideen probetxamendu bereziagatiko prezio publikoen bidez biltzen diren diru kopuruak bide horreek artatu, mantendu eta hobetzeko erabiliko dira.

7.- artikulua.-Luzamendua:

Lizentziaren indarraldi-epea amaitu aurretik, titularrak epe horren luzapena eskatu ahal izango dau. Eta horretarako, eskaria aurkeztu beharko dau eta bertan behar bezala justifikatu beharko ditu lanen atzerapenaren arrazoiak. Dena den, aprobetxamendua gauzatzeko, Ordenantza honen 17. artikuluak ezarritakoa bete beharko da.

8.- artikulua.-Agiriak onartzea eta zaintza:

Garraiolariak garraio-lanek irauten duten tarte osoan (uneoro) izan beharko ditu eskura, batetik, lizentzia emateari buruzko udal erabakiaren jakinarazpena edo beronen aldakia, eta bestetik, prezio publikoa ordaindu eta fidantza gordailatu duela egiaztatzen duten ordain gutuna edo beronen aldakia. Agiri horiek udaltzain edo udal arduradunei erakutsi beharko dizkie, eskatuz gero

9.- artikulua.-Fidantza:

Bideak erabili baino lehen, egurra ateratzeko lizentzia eskatzen duenak fidantza jarri beharko du erabilpenak bideei egin diezazkiekeen kalteak ordaintzeko.
Fidantza eskudirutan edo banku abalaren bidez jarri ahal izango da, egin litezkeen kalteei erantzuteko.

Artículo 6.-Tasas:

1 La licencia municipal se entenderá otorgada, en todo caso, condicionada al pago de la tasa correspondiente que, en su caso, se establezca, no pudiendo entre tanto iniciarse la utilización o el aprovechamiento.

2. La falta de pago de la tasa determinará de forma automática la revocación de la licencia.

3. Las cantidades que se recauden, en su caso, en concepto de tasa por el aprovechamiento especial de caminos de titularidad o administración municipal se destinarán a obras de conservación, mantenimiento y mejora de los mismos.

Artículo 7.-Prórroga:

El/la titular de la licencia podrá instar antes de la terminación del plazo, una prórroga del mismo, mediante solicitud en que queden debidamente justificadas las razones del retraso. En cualquier caso la ejecución del aprovechamiento deberá cumplir lo establecido en el artículo 17 de la presente Ordenanza.

Artículo 8.-Aportación de documentos y vigilancia:

El/la transportista está obligado/a a aportar, durante todo el momento del transporte, el original o copia de la notificación del acuerdo municipal de concesión de la licencia y de las cargas de pago justificativas del abono del precio público y depósito de la fianza. Los citados documentos deberán ser mostrados a los agentes o responsables municipales cuando sean requeridos por éstos.

Artículo 9.-Fianza:

El/la solicitante de la licencia para saca de madera, con anterioridad a la utilización de los citados caminos, deberá depositar una fianza que responderá de los daños que se pudieran ocasionar por el uso de los camiones.
La fianza podrá realizarse en metálico o aval bancario que responda de los posibles daños.

Fidantzaren zenbatekoa ondokoa izango da:
- 1.500 estereora arte: 3.000€.
- 1.501 estereotik gora: 6.000€.

La cuantía de la fianza se establece en:
- Hasta 1.500 estéreos: 3.000€
- De 1.501 estéreos en adelante: 6.000€"

Baso batetik egurra ateratzeko ematen den fidantzak ez du inoiz ere balioko beste baso batetik egurra ateratzeko, nahiz eta probetxamenduak aldi berean egin. Fidantza itzultzeko prozedura ebazteko gehienezko epea hura eskatzen denetik zenbatu beharreko hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren beren beregiko ebazpenik ez badago, hari oniritzi zaiola ulertuko da.

En ningún caso servirá la fianza para la saca de otro monte, aún realizándose los aprovechamientos simultáneamente. El plazo máximo para resolver el procedimiento de devolución de la fianza será de 1 mes desde que se solicite la misma. La falta de resolución expresa, transcurrido el citado plazo, tendrá efectos estimatorios.

Bide publikoa erabiltzen duten eta lizentzia behar duten gainerako jarduerei dagokien fidantza beste jarduera nagusia horretarako eskatu duten lizentziaren abalean doa sartuta.

La parte correspondiente a la fianza en el resto de actividades sujetas a licencia que supongan el uso de los caminos públicos, será incluida en el aval principal de la actividad.

10.- artikulua.-Bideen garbiketa:

Probetxamenduaren onuradunek uneoro bermatu beharko dute bidea edonork eta publikoki erabil ahal izatea; horretarako, probetxamenduak dirauen bitartean behar diren konponketa eta garbiketa guztiak burutuko dituzte. Hala egiten ez badute, Udalak beraien pentzura burutu ahal izango ditu.Beti ere, onuradunek zirkulazioa ez eragozteko behar diren neurriak hartu beharko dituzte. Bideak ezin oztopatu izango dira ez enborrez, ez zuhait-abarrez eta kendu egin beharko dituzte ibilgailuek bideetan uzten dituzten lur, harri eta abarrak.

Artículo 10.-Limpieza de caminos:

Los/as beneficiarios/as del aprovechamiento deberán garantizar, en todo caso, el uso común y público del camino, efectuando para ello cuantas reparaciones y limpiezas sean necesarios durante el tiempo que dure el aprovechamiento. En caso contrario, éstas podrán realizarse por el Ayuntamiento a costa de aquéllos. En todo caso, los/las beneficiarios/as deberán adoptar cuantas precauciones se requieran para no perjudicar la circulación, no pudiendo ocuparse el camino con troncos ni ramas de los árboles, estando obligados a retirar de la vía pública cuantos productos como tierras, piedras, etc., depositen los vehículos en la misma.

11.- artikulua.-Txosten teknikoak:

Udalaren zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egin eta bideen erabilpenaren aurreko eta ondoko egoerei buruzko txostena emango dute. Txosten horien lagungarri agiri argazkidunak, planoak, ikusentzunezkoak eta abarrak eman ahal izango dituzte.

Artículo 11.-Informes técnicos:

Los servicios técnicos municipales realizarán visita de inspección y emitirán informe sobre el estado de los caminos municipales con anterioridad y posterioridad a su utilización. Los citados informes podrán estar apoyados en documentación fotográfica, planimetría, audiovisual, etc.

12.- artikulua.-Konponketa-obrak:

Txosten teknikoa ikusirik, lizentziaren titularrari egin beharreko konponketak jakinaraziko zaizkio, hala badagokio, bai eta zein epetan burutu behar diren ere. Epe horreta ez badira eskatutako konpoketaak egin, Udalak modu subsidiarioan betearaziko ditu behartuaren pentzura, eta behartuak jarri duen fidantzari dagokion kenketa egingo zaio. Fidantzaren kopurua nahikoa ez bada, kalte guztiak ordaindu arteko diferentzia eskatuko zaio.
Kalteak konponezinak badira, suntsitutako ondasunen balio bereko kopurua edo egindako narriaduraren zenbatekoa emango zaio Udalari kalteordain gisa.

Udalaren bideak batek baino gehiago badarabiltza (batera) eta bide horiek kalteak eragiten badizkiete, erantzukizunak erabiltzaileen arte banatuko dira, bakoitzari berari dagokion heinean.

13.-artikulua.-Bitartekartiza, adiskidetza eta tartekaritza:

Udalaren eta lizentziaren titularraren artean kalteen balorazioaz edo haien ordainketaz adostasunik egon ezean, alderdiek bitartekaritza, adiskidetza eta tartekaritzako prozeduren menpean jarri ahal izango dute euren burua, hori bai, aurretik beren beregiko akordioa beharko da alderdien artean. Hala denean, prozedura horiek eragiten dituzten gastuak lizentziaren titularraren konturakoak izango dira.

14. artikulua.-Baxa adierazpena:

Behin aprobetxamendua amaituz gero, interesatuek baxa adierazpen egokia aurkeztu beharko dute Udal Administrazioan. Baja horrek, adostasuna egonez gero, aurkezten den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondoreak.

Artículo 12.-Obras de reparación:

A la vista del informe técnico, se pondrá en conocimiento del/la titular de la licencia las reparaciones que, en su caso, deban efectuarse indicándole el plazo en que deban ser realizadas. Transcurrido el citado plazo sin que se hubiesen efectuado las reparaciones requeridas, el Ayuntamiento procederá a su ejecución subsidiaria a costa del obligado, con la correspondiente deducción del importe de la fianza depositada. En caso de que ésta no fuera suficiente se exigirá la diferencia hasta cubrir la totalidad de los daños.
Si los daños causados fueran irreparables, el Ayuntamiento será indemnizado en una cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro ocasionado.
En el supuesto de que sean varios los que utilicen simultáneamente los mismos caminos municipales, y existan desperfectos, se procederá a una distribución proporcional de las responsabilidades entre los/las diversos/as usuarios/as.

Artículo 13.-Mediación, conciliación y arbitraje:

En el caso de divergencias entre el Ayuntamiento y el/la titular de la licencia sobre la valoración de daños o su reparación, las partes, previo acuerdo expreso, podrá someterse a procedimiento de mediación, conciliación y arbitraje que, en todo caso, precisarán del subsiguiente acuerdo, pacto, convenio o contrato entre las partes. En este caso, los gastos que se ocasionen como consecuencia de estos procedimientos serán de cuenta del/la titular de la licencia.

Artículo 14.-Declaración de baja:

Una vez finalizado el aprovechamiento, los/las interesados/as están obligados a presentar la oportuna declaración de baja, que lo hará en la Administración Municipal la cual, en caso de conformidad, tendrá efectos a partir del siguiente a aquél en que fue presentada.

15. artikulua.-Jabeen erantzukizuna:

Garraiatzen diren materialen jabeak ordenantza honetatik eratorritako betebeharren erantzule solidario izango dira.

16. artikulua.- Harrobiak, meatzaritzako jarduerak eta lur mugimenduak:

Bide horiek harrobietako materialak atera eta lurrak mugitzeko erabiltzeak berekin ekarriko du jarduera horien titularrak diren enpresek bideon ibilbide osoa mantendu beharra.
Udalaren zerbitzu teknikoek aldian-aldian ikuskatuko dituzte bideak, eta antzematen dituzten kalteak enpresek konpondu beharko dituzte.

17. artikulua.- Aprobetxamendua burutzea. Epeak:

Bideen aprobetxamendu berezia egiteko, ezinbestekoa da eguraldi lehorra edukitzea eta zorua ez egotea heze.
Aprobetxamenduaren onuradunen ardura izango da bideak lizentzia eman aurretik zeuden egoera berean edukitzea momentu oro, eta konpontzeko lanik egin behar izan ezkero, lan horiek eurek ordaindu beharko dituzte.
Egurra ateratzeko aprobetxamenduak burutzeko lehentasunezko epea maiatzean hasi eta urrian amaituko da (urte guztietan), biak barne. Hil horietan lizentzia hiru hilabeterako emango da, betiere, aipatutako tarte horretan sartzen bada.
Azarotik apirilera bitartean ematen diren lizentzietan aprobetxamendua zein egunetan egingo den zehaztu beharko da. Horretara egiaztatu ahal izango da lizentziaren titularrak bete egiten dituen ala ez ezarritako baldintzak. Lizentziaren titularrak jarduera hasi baino egun bi (baliodunak) lehenago eman beharko du hasieraren berri eta jarduerari ekiten dionean berariazko baimena eskuartean eduki beharko du.

Artículo 15.-Responsabilidad de propietarios:

Los/las propietarios/as de los materiales transportados serán responsables solidarios/as del cumplimiento de las obligaciones derivadas de la presente Ordenanza.

Artículo 16.-Canteras, actividades mineras y movimientos de tierras:

El uso de estos viales para actividades de extracción de materiales de canteras y movimientos de tierras, llevará consigo la obligación de mantenimiento de los caminos en todo su recorrido por las empresas titulares de dichas actividades
Periódicamente serán inspeccionados estos caminos por los servicios técnicos municipales y los desperfectos que se observen deberán ser reparados por las citadas empresas.

Artículo17.- Ejecución del aprovechamiento. Plazos:
Para el aprovechamiento especial del camino es indispensable que el tiempo sea seco y el firme no se encuentre húmedo.
Los beneficiarios del aprovechamiento se responsabilizarán de que los caminos permanezcan en todo momento en las mismas condiciones anteriores a la autorización, soportando el coste en caso de necesidad de actuación por deterioro en las mismas.
Se establecen como plazos de ejecución preferente del aprovechamiento para saca de madera los comprendidos entre mayo y octubre de cada año, ambos inclusive. En dichos meses la concesión de la licencia se otorgará por un plazo estimado de tres meses, siempre que el mismo quede enmarcado dentro de este periodo.
Entre los meses de noviembre a abril, la concesión de la licencia conllevará la determinación de los días en los que ejecutar el aprovechamiento. Al objeto de poder verificar el cumplimiento de estas obligaciones, el/la titular de la licencia deberá comunicar al responsable municipal con dos días hábiles de antelación el inicio de la actividad y contar con la autorización expresa del mismo.

18. artikulua.- Ingurumen baldintzak:

Udal bideen erabiltzaile guztiek ondoko ingurumen baldintzak bete beharko dituzte:
a) Ez da inolako hondakinik utziko bide baztarrean: Plastikozko boltsak, hondakin organikoak eta abar.
b) Bideetatik ibiltzen diren ibilgailuek ez dute agente kutsatzailerik botako: Gasolina, orioak...
c) Bide-zorua lurrezkoa bada, ez da bidea erabiliko urez beteta dagoenean, lurzorua ez aldatzeko.

d) Bideak zehar dauden ur mozketak errespetatuko dira, luzaroko higadura saihesteko.
e) Bide-zorua konpontzeko orduan ez da jatorrizko lur-zoru mugakidea aldatuko, eta bide-zoru berria jartzea beharrezkoa balitz, material inertea erabiliko dala.
f) Lurrezko lur-zorua duten bideak konpontzen direnean, aurretiaz egindako ur-mozketak lehengo moduan utzi beharko dira. Eta urak bide luzea eta abiadura handia hartzen duela uste izanez gero, berriren bat ere egin liteke.
g)Pasabidea zabaltzeko, ezingo da inola ere bidearen mugakide diren lurretan zuhaitzik ez landarerik moztu, inausi edo apurtu, dagokion baimena eduki ezik.
h) Errekaren bat gurutzatu behar bada, guztiz debekatuta egongo da errekaren ibilgua aldatzea, baita erreka-bazterretako landeria aldatzea ere.

Artículo 18.- Condiciones medioambientales:

Todo usuario/a de pistas municipales deberá cumplir las siguientes condiciones medioambientales:
a) No se depositará residuo alguno en el margen del camino como bolsas de plástico, cables de arrastre, latas de gasolina, etc.
b) Los vehículos que transiten por el camino no despedirán contaminantes, tales como gasoil, aceite, lubricantes, etc.
c) En caso de caminos con firme de tierra, se evitará el uso de éste cuando el mismo se encuentre anegado de agua, a fin de evitar la alteración del perfil del suelo.
d) Se respetarán los cortes de agua que existan a lo largo del camino, a fin de evitar una acción erosiva prolongada a lo largo del mismo.
e) Para proceder al arreglo del firme dañado, no se alterará el suelo virgen colindante, añadiendo material inerte en caso de ser necesario un reafirmado.
f) En el acondicionamiento posterior de caminos de firme de tierra se dejarán perfectamente los cortes de agua previos, pudiendo realizarse alguno nuevo en los tramos donde se estime que el agua adquiere una gran velocidad y recorre un tramo considerable.
g) En ningún momento se procederá a la tala, poda o rotura de vegetación colindante del camino para permitir el paso sin la autorización oportuna.
h) En caso de cruce de arroyos, queda terminantemente prohibida la alteración del curso de los mismos, así como de la vegetación de sus riberas.

19. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak:

Araudi honetan aurreikusitakoa hausten duten ekintza nahiz omisioek administrazio-erantzukizuna sortuko dute. Horrek ez du kentzen bide penal, zibil edota alorren batean egindako hausteengatik eska daitekeen erantzukizuna.
Herri-Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legean ezarritako arauen, hastapenen eta prozeduraren arabera eskatu ahal izango da administrazio-erantzukizuna.

Artículo 19.- Infracciones y sanciones:

Las acciones u omisiones que infrinjan lo prevenido en la presente normativa generarán responsabilidad administrativa, sin perjuicio de lo exigible en vía penal, civil o de otro orden en que puedan incurrir.

La responsabilidad administrativa será exigible de conformidad con las normas, los principios y el procedimiento establecido en la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del procedimiento Administrativo Común.

20. artikulua.- Arau-hauste motak:

1.- Administrazio erantzukizunak bere gain hartuko dituzte artikulu honetan zehaztutako edozein arau-hauste egiten dutenek.
2.- Udalaren jabetzakoak diren landa- eta mendi-bideetatik ibilgailu motordun astunak ibiltzeari dagokionean:
A.- Arau-hauste arinak:
a) Landa- eta mendi-bideetatik Ibilgailu astun motordunak dagokien baimena barik ibiltzea, edo emandako baimenetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea, gero legeztatu ahal bada.

b)Zama-lanengatik bidea okupatzea eta beste batzuentzat oztopo izatea, bidea okupatzeko baimenik izan gabe.
c)Bidea edo pista egoera txarrean edukitzea, hau da, inor ez pasatzeko moduan.
d)Ingurumen baldintzak ez betetzea, eraginiko ekosisteman, floran, faunak edo paisaian kalterik ez dakarrenean.

e)Bamendutako abiadura gaintzea.

B.- Arau-hauste larriak:
a) Landa- eta mendi-bideetatik Ibilgailu astun motordunak dagokien baimena barik ibiltzea, edo emandako baimenetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea, gero legeztatu ezin bada.
b) Bidea edo pista bertatik igarotzen diren pertsona eta ibilgailuentzat arriskutsu edukitzea.

c) Ingurumen baldintzak ez betetzea, eta ondorioz, eraginiko ekosistemari, florari, faunari edo paisaiari kalte arina eragitea.
d) Baimendutakoa baino pisu handiagoa garraiatzea.
e)
C.- Arau-hauste oso larriak:
a) Ingurumen baldintzak ez betetzea, eta ondorioz, eraginiko ekosistemari, florari, faunari edo paisaiari kalte larria eragitea.
b) Ausarkeriaz gidatzea.

Artículo 20.-Tipos de infracciones:

1.- Incurrirán en responsabilidad administrativa quienes cometan cualquiera de las infracciones tipificadas en los apartados siguientes de este artículo.
2.- Respecto a la circulación de vehículos a motor pesados por los caminos y pistas municipales:

A.- Son infracciones leves:
a) La circulación de vehículos a motor pesados a través de los caminos y pistas rurales-forestales sin la pertinente autorización o incumplir alguna de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas, cuando puedan ser objeto de legalización posterior.
b) Invasión del camino por llevar a cabo la carga o descarga de material, impidiendo su paso y sin la autorización específica pertinente.
c) Mantener el camino o pista en condiciones que no permitan el tránsito por el mismo.
d) Incumplimiento de cualquiera de las condiciones medioambientales, cuando no supongan ningún tipo de repercusión para el ecosistema, flora, fauna o paisaje afectado.
e) Circular con velocidad superior a la permitida.

B.- Son infracciones graves:
a)La circulación de vehículos a motor pesados a través de los caminos y pistas rurales-forestales sin portar la pertinente autorización, o incumplir alguna de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas, cuando no fuera posible la legalización posterior.
b) Mantener el camino o pista en condiciones que entrañen peligro para el tránsito de vehículos o personas.

c) Incumplimiento de cualquiera de las condiciones medioambientales, cuando supongan una repercusión leve para el ecosistema, flora, fauna o paisaje afectado.
d) Transitar con un peso mayor al autorizado.

C.- Son infracciones muy graves:
a) Incumplimiento de cualquiera de las condiciones medioambientales, cuando supongan una repercusión grave para el ecosistema, flora, fauna o paisaje afectado.
b) Conducción temeraria.

3.- Udalaren jabetzakoak diren landa- eta mendi-bideen jabetzaren mugei eta, oro har, erabilerari dagokienez:

A.- Arau-hauste arinak:
a) Beharrezko den baimena edo lizentziarik gabe obrak, instalazioak edo itxiturak egitea; edo emandako baimenean agertzen den aginduetakoren bat ez betetzea, gero legeztatu ahal bada.
b) Zuhaitza landatzea edo egurra zein ostantzeko materiala pilatzea baimenik gabe; baimendu gabeko erabilera aldaketa egitea edo dagokion baimena lortu gabe egitea; edo emandako baimenean ezarritako baldintza guztiak ez betetzea.
c) Informazio kartelak jartzea erakunde eskudunaren baimenik gabe.

B.- Arau-hauste larriak:
a) Beharrezko den baimena edo lizentziarik gabe obrak, instalazioak edo itxiturak egitea; edo emandako baimenean agertzen den aginduetakoren bat ez betetzea, gero legeztatu ezin bada.
b) Zirkulazioaren antolaketarekin, bideraketarekin eta segurtasunarekin zuzenean lotutako edozein elementu funtzional kendu, kaltetu edo apurtzea, edo bere ezaugarriak zein egoera aldatzea nahita, hau da, intentzio osoz.
c) Bidearen edozein obra edo instalazio apurtzea edo aldatzea; baita edozein egiturazko elementu apurtzea ere.
d) Baimendu gabeko aireko eta lurpeko bidegurutzeak egitea, edo baimenik gabe egitea; edo baimenean ezarritako baldintzak bete gabe.
e) Edozein publizitate euskarri jartzea ikusteko moduko lekuan.
f) Bideari kalte arinak eragitea baimendutako gehiegizko pisua, zama edo abiadura erabiltzeagatik.

C).- Arau-hauste oso larriak:
a) Zirkulazioaren antolaketarekin, bideraketarekin eta segurtasunarekin zuzenean lotutako edozein elementu funtzional kendu, kaltetu edo apurtzea, edo bere ezaugarriak zein egoera aldatzea, baldin eta, aldaketa horren ondorioz elementu horrek bere funtzioa betetzeari uzten badio.

3.- Respecto a las limitaciones de la propiedad y uso en general de los caminos y pistas municipales:

A. Son infracciones leves:
a) Realizar obras, instalaciones o cierres no permitidos, llevadas a cabo sin las autorizaciones o licencias requeridas, o incumplir alguna de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas, cuando puedan ser objeto de legalización posterior.
b) Realizar plantaciones de arbolado, acopio de maderas o materiales, o cambios de uso no permitido o sin la pertinente autorización o sin atenerse a las condiciones de la autorización otorgada.
c) Colocar carteles informativos sin autorización del órgano competente.

B.- Son infracciones graves:
a) Realizar obras, instalaciones o cierres no permitidos llevadas a cabo sin las autorizaciones o licencias requeridas, o incumplir alguna de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas, cuando no fuera posible su legalización posterior.
b) Deteriorar cualquier elemento funcional del camino directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de la circulación o modificar intencionadamente sus características o situación.
c) Destruir, deteriorar, alterar o modificar cualquier obra o instalación del camino o de los elementos estructurales del mismo.
d) Realizar cruces aéreos o subterráneos no permitidos, o sin la pertinente autorización, o sin atenerse a las condiciones de la autorización otorgada.
e) Establecer cualquier clase de publicidad visible.
f) Dañar o deteriorar levemente el camino circulando con peso, carga o velocidad que exceda de los límites autorizados.

C).- Son infracciones muy graves:
a) Sustraer, deteriorar o destruir cualquier elemento funcional del camino directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de la circulación o modificar intencionadamente sus características o situación, cuando se impida que el elemento de que se trate siga prestando su función.

b) Bidearen edozein obra edo instalazio apurtzea edo aldatzea, baita edozein egiturazko elementu apurtzea ere; baldin eta, aldaketa edo apurketa horrek galtzadari edo bazterbidei eragiten badie.
c) Bideari kalte larriak eragitea baimendutako gehiegizko pisua, zama edo abiadura erabiltzeagatik.

4.- Zehapen-prozesura
a) Udal erakunde eskudunei dagokie zehapen-prozesurak hastea, izapidetzea eta ebaztea.
b) Udaltzaingoak edo bide-zaintzaileek salaketa dokumentuan (edo legezko baldintzak betetzen dituen beste dokumentu publiko batean) egiaztatutako gertakizunek frogazko balioa izango dute. Hala ere, bakoitzaren eskubideen edo interesen defentsan, administratuek aukera izango dute euren aldeko frogak aurkezteko.

c) Arau-hausteak oker edo delitu izan daitezkeen kasuetan, administrazioak zehapen-espedientearekin aurrera jarraitu ahal izango du, eskudun jurisdikzioak egiaztatutzat jo dituen ekintzetan oinarrituta.

5.- Isunen taula
Aurreko artikuluetan aipatzen diren arau-hausteak eurok eragindako kalte eta galeren arabera zigortuko dira, eta horrela gertatzen bad, sortutako arriskuaren eta eragilearen intentzioaren arabera. Era honetara:
- Arinak: 150 eurotik 500 eurora bitarteko isuna.
- Larriak: 501 eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna. .
- Oso larriak: 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.

6.- Arau-hausteen preskripzioa
A).- Aurreko artikuluetan aipatzen diren arau-hausteen preskripzio-epea hiru urtekoa izango da arau-hauste oso larrientzat, urte bikoa larrientzat eta sei hilabetekoa arinentzat. Preskripzio-epea arau-haustea egiten den egunetik gora hasiko da zenbatzen.

b) Destruir, deteriorar, alterar o modificar cualquier obra o instalación del camino o de los elementos estructurales del mismo, cuando las actuaciones afecten a la calzada o a los arcenes.

c) Dañar o deteriorar gravemente el camino circulando con peso, carga o velocidad que exceda de los límites autorizados.

4.- Procedimiento sancionador:
a) Corresponde a los Órganos municipales competentes la iniciación, instrucción y resolución de los procedimientos sancionadores.
b)Los hechos constatados por la autoridad municipal o los/AS vigilantes de caminos designados al efecto que se formalicen en los documentos de denuncia o en otro documento público observando los requisitos legales pertinentes, tendrán valor probatorio sin perjuicio de las pruebas que en defensa de los respectivos derechos o intereses puedan señalar o aportar los propios administrados.
c) En los supuestos en que las infracciones pudieran ser constitutivas de delito o falta, la administración podrá continuar el expediente sancionador, con base, en su caso, en los hechos que la jurisdicción competente haya considerado probados.

5- Cuadro de sanciones:
Las infracciones a las que ser refieren los artículos anteriores, serán sancionadas atendiendo a los daños y perjuicios producidos, en su caso, el riesgo creado y a la intencionalidad del causante, con las siguientes multas:
- Leves: multa de 150 a 500 euros.
- Graves: multa de 501 a 1.500 euros.
- Muy graves: multa de 1.501 a 3.000 euros.

6.- Prescripción de infracciones y sanciones:
A).- El plazo de prescripción de las infracciones a que se refieren los artículos anteriores será de tres años para las muy graves, dos para las graves y de seis meses para las leves. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido.

B) Aurreko artikuluetan aipatzen diren zehapenen preskripzio-epea hiru urtekoa izango da oso zehapen oso larrientzat, urte bikoa larrientzat eta urtebetekoa arinentzat. Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezarri duen ebazpenak irmotasuna lortzen duen egunetik hasita zenbatuko da.

B).- El plazo de prescripción de las sanciones a que se refieren los artículos anteriores será de tres años para las muy graves, dos para las graves y de un año para las leves. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción.

7.- Kalte eta galeren indemnizazioa
Mungiako Udalarenak diren landa- eta mendi-bideetan edo eurok dituzten elementu funtzionaletan kalteak eragiten dituen pertsona orok –bidezkoak diren zehapenez aparte indemnizatu egin beharko du Udala.

Mungiako Udalari dagokio erabiltzaileak bide horietan eragin dituen kalte eta galeren zenbatekoa seinatzea.
Salatuari kalte eta galeren balorazioaren edo balorazioen berri emango zaio, berea egin dezan edo egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

Egindako kalteak eta galerak jakinaraziko dituen indemnizazio akordioa zehapen-espedienteari amaiera emango dion ebazpenean egingo da, baina horretaz aparte, edozein modutan ere, egin egin beharko da, nahiz eta ebazpena absoluziokoa izan, ezpada administrazio erantzukizunaren salbuespenak erantzukizun zibila ez daramala.
Arau-hauste baten ondorioz gertatutako kalte eta galeren indemnizazio-akordioak, finkatutako legezko epeetan betetzekoak izango dira, eta errekutsoa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza gauzatzea, ezpada, araubideari jarraituta, eskudun organoak hala agintzen duela.
Indemnizazioa ezarritako epean ordaindu ezik, Udalak premiamendu bidez ordainaraziko dio dagokionari.

7.- Indemnización de daños y perjuicios:
Toda persona que cause daños en los caminos y pistas rurales-forestales del Ayuntamiento de Mungia, o en cualquiera de sus instalaciones o elementos funcionales deberá indemnizarlos con independencia de las sanciones que resultaren procedentes.

El señalamiento de la cuantía de los daños y perjuicios causados en tales caminos corresponde al Ayuntamiento de Mungia.
La valoración o valoraciones serán trasladadas al/la denunciado/a para que realice la suya o presente las alegaciones que considere oportunas.

El acuerdo de indemnización que contendrá el señalamiento de los daños y perjuicios causados se realizará en la resolución que ponga fin al expediente sancionador, pero independientemente de ésta, habrá de efectuarse en todo caso, aunque la resolución sea absolutoria siempre que la exención de la responsabilidad administrativa no comprenda la responsabilidad civil.
Los acuerdos de indemnización de daños y perjuicios como consecuencia de la infracción, serán ejecutivos en los plazos legalmente fijados, sin que la interposición del recurso suspenda la ejecución del acto impugnado, salvo que, conforme con el ordenamiento jurídico, así lo ordene el órgano competente.
En caso de impago de la indemnización señalada dentro del plazo establecido, el Ayuntamiento procederá a su exacción por la vía de apremio.

AZKEN XEDAPENA
Lehenengoa

Toki Araubidearen oinarriak ezartzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezarritakoari jarraituta, Ordenantza honen testu osoa (behin betiko onarpena jaso duena) argitaratu eta aipatutako legearen 65.2 artikuluak ezartzen duen epea igarotakoan sartuko da indarrean Ordenantza hau.

Bigarrena
Ordenantza honen onarpenak indargabetu egiten du aurreko "Udal Titulartasun edo Administrazioko Bideen Aprobetxamendu Berezia araupetzen duen Ordenantza".

DISPOSICION FINAL
Primera

La presente Ordenanza entrará en vigor de conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, una vez se haya publicado íntegramente el texto aprobado definitivamente y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 del citado texto legal con los efectos señalados en dicho artículo.

Segunda
La aprobación de la presente Ordenanza deroga la anterior "Ordenanza Reguladora del Aprovechamiento Especial de Caminos de Titularidad o Administración Municipal".